

# DROGETEN ITURRI


Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 230. zkia. 2015eko urtarrila



**Errugbia,  
lagun artean hobe**

# GREMIOEN

## GIDA



**DEKORAZIOA**  
OBREN KOORDINAZIOA \* MARIAN CABRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

**trastévere**  
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua  
tel/faxa. 943 17 90 89  
trastevere@wanadoo.es

**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

**LUIS VALLE**

Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56

Tailerra  
943 17 23 56

Goienkale z/g

**PINTURAK**

**J. LUCAS**

**PINTURA EN GENERAL**

630 22 51 36

**ELEKTRIZITATEA**

**BETA**

**ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13      943 17 65 25  
689 23 31 71

**ERROTULAZIOA**

**ROTEK**  
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)  
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

**ETXE-BIRGAITZEAK**

BERRITZE LANAK  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOK  
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina    Zeharkalea, 36, 3<sup>a</sup> 48200 Ermua-Bizkaia

**PERTSIANAK**

**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:  
Zearreko buelta 2  
943 17 66 34  
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60

**AROTEGIA**

**iraner**  
Puertas EDER Carpintería

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulak salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 - iranercb@gmail.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Igone Amesti, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ander Fernandez.

**LAGUNTZAILEAK:**

Amaia Arriaga, Antonio  
Hernández 'Cuco',  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López,  
Pello Mugarza, Valentín  
Mugarza eta Jabi Vidal.

**ARGAZKIAK:**

Jabi Alberdi, Igone Amesti,  
Amaia Arriaga, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Estibalitz González, Mallabi  
Eskola, Klemente Manuel  
Corredera, Kaltxango AEK,  
Alain Kortazar,  
Esther Astarloa, Valentín  
Mugarza, Ermuko Udala eta  
Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

## MUXAR GRISA lirón gris *Glis glis*

Negualdi luzea da berarena, zurru-zurru ematen baitu udazkeneko lehen hotzetatik udaberri epela ondo aurrera doan arte. Zeharo lodituta erretiratzen bada ere, horiek hilabeteotan kaskartu eta pisua erdira etortzen zaio. Itxuran katamixarraren antz handikoa da, baina gris kolorekoa, eta oinatza ere haren modukoa du. Jate kontuetan ere dieta berdintsua dute biek ala biek: ezkurak, urrak, pinu-haziak, gaztainak... baina muxarrak, ostera, gose bada intsektu zein hegaztien arrautza eta kumeak errezero barik kolpatzen ditu. Bere buztanak mekanismo harrigarria du: harrapakinen batek bertatik oratu ezker gorputzetik askatu daiteke eta gerora berriro erregeneratu. Zati baterako buztanik gabe, baina bizirik!



## Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 Feliz Leon (Dominikar Errepublikak)	BOTEPRONTOAN .....16 Nahiara Gallastegi
ELKARRIZKETA .....5-7 Alain Kortazar, aktorea	KIROLZALE .....17 Ander Fernandez, Markel Liaño eta Ibon Vega erreugbilariak
MALLABIAN ZER? .....8-9 Aiala Amesti, txirindularia	IRITZIA .....18 "Eta badakizu"
ERREPORTAJEA .....10-11 Gurutze Gorria elikagaiak banatzen	SALEROSKETAK .....19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN.....12-13 Inauteriak ate joka	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? .....14 Esther Astarloa, zeramista	KALEKO INKESTA .....21 Produktu ekologikoak kontsumitzeko ohitura daukazu?
ESKOLEN TXOKOA .....15 Mallabi Eskolakoen berriak	AGENDA .....22 Otsaileko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

## Felix Leon

Dominikar Errepublikako klima beroa utzi eta Ermuko negura etorri zen zuzenean Felix Leon 2008an. Cibao eskualdeko La Vegakoa jatorriz, familiaren magaletik irten eta erronka bila gurutzatu zuen ozeanoa. Zerbitzaria da Ermuko taberna batean eta bere izaera latinoa ez du atzean uzten.

### - *Nolakoa da La Vega?*

Santiagotik hurbil dago, oso handia dena, eta baita Puerto Platatik ere, oso toki turistikoa. La Vegako inauterriak dira Dominikar Errepublikako famatuena, baita munduan ere. Sasoi honetan turista asko hurbiltzen da eta ekintza ugari egiten dira. Koadrilek 'kobak' antolatzen dituzte, txosna edo gune antzekoak, eta artista famatuak eramaten dituzte.

### - *Dominikar Errepublikaz berba egitean, ia ezinezkoa da hondar zuri eta ur turkesan pentsatzea, baina hortaz zer dago haratago?*

Hara oporretan doazen asko ez dira ia hoteletik irteten, hondartzara joateko bakarrik. Irteten badira ere, pare bat lekutara doaz eta kitto! Nire iritziz, bidaiatzen baduzu, zoazen toki hori ondo ezagutzea da onena, hoteletik irten eta bertakoa ezagutzea. Ni Kuban eta Turkian egon naiz, eta horrela egin nuen. Kuban, adibidez, aurreiritziak apurto nituen, modu batean deskribatu zidatelako eta nik beste modu batean ikusi nuelako. Era berean, nire herrialdera doazen



gehienek esango nuke ez dutela Dominikar Errepublika ondo ezagutu.

### - *Turismoaren eragina handia da?*

Kostalde osoa hotel, etxegune eta abarrez dago beteta. Dena dago turismoari begira antolatuta. Punta Cana da famatuena, baina toki gehiago dago.

### - *Nolakoa zen zure bizitza han?*

Gurasoek beti supermerkatu txikia izan dute (bodega) eta beti han aritu izan naiz lanean. Eroso bizi nintzen.

### - *Zergatik erabaki zenuen hona etortzea?*

Ezkutuan antolatu nuen dena, baina arreba batek hona nentorrela kontatu zien gurasoei. Ez nuen nahi eurak larritzea, baina han ezer falta ez bazitzaidan ere, nire bidea egin nahi nuen, nire buruaz ni bakarrik arduratu eta esperientzia berriak eduki, horretaz ikasteko.

### - *Erabaki erreza izan zen?*

Gauza asko pentsatu behar dira. Ez da bakarrik zure herritik irtetea, bizitza berriari nola aurre egingo dizun kontuan hartu behar da. Handik ez da erreza hemengo errealitateaz jabetzea, tokian egon behar da.

### - *Zuzenean Ermura etorri zinen?*

Bai, eta ordutik hemen nago. Barzelonan familia daukat eta bisitan joan naiz, baina Ermuan bizi naiz nire herrialdetik joan nintzenetik.

### - *Nolakoa izan ziren lehen egunak hemen?*

Bueltatzea nahi nuen. "Non sartu naiz?", pentsatzen nuen. Baina ohitu nintzen eta orain oso gustura nago.

### - *Euskeraz badakizu?*

Hitz solteak. Azkenean, tabernan lan egiten dudanez, ikasi dut zer-bait.

Ekhi Velar

**SAN ANTONIO**  
OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40  
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63  
Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



Argazkia: Klemente Manuel Corredera

Alain Kortazar, aktorea:

## “Oso pozik nago egindako lanarekin eta baita lan honek izan duen oihartzunarekin”

Tarte txiki batez Bernarda Albaren jantzi eta arima erantzi eta Buenos Airesetik hainbat galdera erantzun dizkigu Alain Kortazarrek. Ametsa ari da bizitze aktore ermuarra Argentinan. Antzerki beka batekin joan eta herrialde osoan izan dute bere berri taula gainean egindako lan bikainaren ondorioz. ‘La casa de Bernarda Alba’ antzezlanean Argentinako izar Norma Pons ordezkatu zuen eta ‘Anda jaleo’-rekin kritika ezin hobeak jaso ditu, bai obrak, bai berak egindako paperak. Klean ere ezagutzen dute eta autografoak sinatu ditu baita ere. Hala ere, arrakastak ez du liluratu eta lanean buru-belarri jarraitzeko asmoa dauka. Hainbat proiektu ditu buruan, bai aktore moduan, baita idazle moduan ere.

**-Nondik datorkizu aktore bokazioa?**

Betidanik izan dut barrenean bokazio hori. Esan behar dut, gainera, nire amaren neba oso aktore fama-tua izan zela, Kosme Kortazar.

**-Zeintzuk izan ziren zure lehen pausuak antzezle moduan? Gogoratzen duzu egin zenuen lehen antzezpena?**

Lehen urratsak ikastolan eman nituen. Lehen antzezpena ere ikastolan egin nuen. Gero, profesionalki Madrilan egin nuen estre-nekoz lana, 17 urterekin.

**-Zaila da aktorea izatea Euskal Herrian? Zailtasunak izan dituzu antzezpena ikasi, garatu edota horretan aritzeko?**

Ez, ez nuke esango zaila denik. Nirekin antzerki eskolan ibilitako lagunek Euskal Herrian egiten dute lan. Hala ere, iruditzen zaidana da oso zirkuitu itxia dela.

**-Nola sortu zitzaizun Argentinara joateko aukera?**

Lehenik, Maiatzaren 1eko amek 'Anda jaleo' antzezlana egitera gonbidatu ninduten Argentinara. Beraz, hona etorri nintzen eta Buenos Aires eta nire artean amodio istorioa sortu zen. Geroago, Timbre 4 antzerki eskolak beka bat eman zidan eta bueltatu egin nintzen.

**-Asko pentsatutako erabakia izan zen?**

Ez. Hemen, Buenos Airesen, antzerkia oso bizirik dago.

**-Nolakoa da hango eszena edo egoera antzezpeneri dagokionez? Hemen baino hobea, txarra...?**


Oso ona dela esango nuke. Aktore guztientzat dago lekua hemen. Adibide bat ipintzearen, asteazken arrunt batean 1.500 antzerki saio daude ikusgai Buenos Airesen. Gainera, antzoki eta taldeen arteko harremanak ezberdinak dira. Hemen, antzerki munduan inor ezagutuz gero, antzoki bat lortu dezakezu.

**-Antzezteko orduan zure gaztelerazko azentua ezkutatu edo mantendu egiten duzu?**

Argentinan egin dudan guztia, nire ahoskerarekin egin dut, normalean hitz egin dudan moduan. 'Anda jaleo' izan da hemen egin nuen lehen lana, beraz, jendeak beti izan dudan gaztelerazko ahoskerarekin ezagutu nau, ez Argentinako gaztelerazko ahoskerarekin. Hala ere, hainbat castingetan egin izan dut 'argentinarez'.

**-Argentinara heldu eta zer, nolakoa izan zen hasiera?**

Lehen aipatu dudan bezala, beka batekin heldu nintzen Argentinara eta, orduan, antzerki eskolan hasi



Alain Kortazar Bernarda Albaren azalean.

nintzen. Han nengoela, 'Anda jaleo' antzezlanean zuzendaria den Susana Toscano etorri zen. Bera argentinarra da, baina Madrilan bizi izan da 24 urtez. Elkartu ginenean, pentsatzen hasi ginen 'Anda jaleo' berriz egitea, baina Argentinan. Beraz, beste bi aktore argentinarrak batu eta horrela hasi zen dena.

**-'La casa de Bernarda Alba' antzezlanean, zure aurretik, Norma Pons-ek egiten zuen Bernarda Albaren papera. Pons Argentinako antzezpenera munduko izarretariko bat izan zen bera ordezkatzeko?**

Bai, oso handia. Sinestezina! Jendeak kaletik ezagutzen ninduen, aldizkari guztietan nire argazkia azaltzen zen, antzokiko atarian autografoak sinatzen nituen, taxistek ezagu-

tzen ninduten eta telebistan agertzen hasi nintzen. Oso esperientzia ezezaguna izan zen eta, era berean, dibertigarria. Norma Pons oso ezaguna zen hemen eta, gaixotu zenean, produktoreak demaseko publizitatea egin zuen nire buruaren gainean, gizon batek ordezkatzeko zuela esanez eta abar, publikoak antzezlana ikustean galdetu ez zezan. Hori niri, aktore moduan, oso ondo etorri zitzaidan.

**-Bernarda Albaren papera, hala ere, ez zen berria zuretzat, 'Anda jaleo' antzezlanean pertsonaia bera interpretatzen baitzenuen. Nolakoa izan da obra biak uztartzea?**

Oso interesgarria izan da pertsonaia berdina antzezlanean ezberdinetan lantzea zuzendari ezberdinekin.

**-Lorca burutik ezin kenduta ibiliko zara...**

**"Buenos Airesen antzerkia oso bizirik dago"**



Drogetenituri, 230 zkia.




SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

Lorca beti daukat buruan. Asko maite dut. Oso drama-turgo ona da eta hemen ere asko maite dute. Orain, Lorcarri buruzko tailerra nabili prestatzen eta jende asko ari da informazioa eskatzen. Lorcak poz handiak eman dizkit nire karreraren zehar.

*-‘La casa de Bernarda Alba’-ren arrakasta handia izan bada, ‘Anda jaleo’ antzezlanarena ez da gutxiagorako. Kritika bikainak jaso ditu Argentina osoan (La Nación egunkarian, Victor Hugo Morales kazetariak biziki gomendatu zuen Radio Continental irrati-tian...). Gainera, zure lana goraiatzaren dute bereziki. Pozik?*

‘Re-pozik’, jaja. Ez daukat hitzik hainbeste poztasun azaltzeko. Oro har, oso kritika onak jaso ditut. Oso pozik nago egindako lanarekin eta baita lan honek izan duen oihartzunarekin.

*-‘Anda jaleo’ zure bizitzako lana da?*

Bai, noski. Orain arte egindako lan guztiakin ikasi dut, baina ‘Anda jaleo’ antzezlanean aktore eta gidoilaria izanez, eta izan duen arrakasta ikusita, nire bizitzako lana dela esango nuke, duda barik.

*-2010ean aurkeztu zenuen ‘Anda jaleo’ eta Ermuan ikusgai izan zen. Hirugarren aldi bat egongo da?*

Deitzen diguten lekura goaz aktoreok. Galdera hori

## “Gehien gustatzen zaidana da nik idatzitako gidoiak antzeztea”

Patxiri bidaltzen diot, jaja. Gustatuko litzaidake! Niretzat, Ermuan lan egitea beti izan da ona.

*-Aldeak ikusten dituzu Argentinako publikoaren eta hemengo publikoaren artean? Ala hori kontzeptu unibertsala da eta han eta hemen berdin portatzen da jendea?*

Hemen jendea oso antzerkizalea da, denek ikusten dute antzerkia. Antzerkiak asko dakite. Gainera, oso zaleak dira, oso ‘fan’. Obra amaitu eta gero, publikoa atean geratzen da itxaroten eta aktoreekin hitz egitea nahi izaten dute. Horretaz aparte, ‘Anda jaleo’ antzezlanarekin konaturatu naiz, produktu on batekin Euskal Herrian, Espainian edota Argentinan jende guztiak egiten duela barre momentu berdinetan.

*-Begirada atzera egitean, Argentinara heldu zinen momentura, irudikatzen zenuen horrelako zerbait gertatuko zenik?*

Ez. Etorri nintzenezan ez nuen gauza gehiegitan pentsatu. Bekarekin etorri nin-

tzan, intentzio handirik gabe, eta orain oso pozik nago. Urte berriari begira gauza asko ditut esku artean. Aurten, ‘Anda jaleo’ bueltatuko da, kabaret bat idatzi eta zuzenduko dut, ‘Conbibenci’ izeneko beste antzezlan batean egingo dut lan aktore moduan, nik idatzi eta zuzendurik ‘Fuman’ film laburra aurkeztuko dut eta Lorcarri buruzko tailerra ari naiz prestatzen.

*-Zertan zabiltza gusturago: antzezten edo gidoiak idatzen?*

Gauza ezberdinak dira. Antzeztzerako orduan, adibidez, nik ezingo nuke antzeztu antzokian inor ez balego jarrita, baina gidoiak idazterakoan bakarrik egiten dut lan. Gehien gustatzen zaidana da nik idatzitako gidoiak antzeztea. Horrela, nik nahi ditudan istorioak kontatzen ditut.

*-Argentinako antzerkian arrakasta izan duen ermuar baten istorioa kontatuko balizute...*

Nire istorioa irakurriko nuke.

Ekhi Velar



## AMAIA HARATEGIA



**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84

**Ermua**

es  
esgolek  
electrizitatea  
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA  
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

## San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com  
**arral**

Telf.: 943 17 60 75

**banatzaile ofiziala**

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

## OUTUMURO

### Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

# Aiala Amesti, BZK ProBasic txirrindulari talde barrixen

**Iurreta Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkartiek sustatu dau durangaldien sortu barri dan UCI mailako emakumezkuen txirrindulari taldie; eta bertan jardungo dau Aiala Amesti mallabitarrak.**

BZK Emakumeen Bira ProBasic UCI Team izeneko taldian aurkezpena abenduan 30ien egin zan Iurretako udaletxien. Bertan taldeko arduraduen eta txirrindularixen aurkezpena egin zan.

Eneritz Iturriaga, txirrindulari ohi abadiñarra eta Humberto Gomez die taldeko zuzendarixek. Elite eta sub 23 kategorixako taldie ondorengo neskek osatzen dabe: Aiala Amesti mallabitarra, Naia Alzola dimoztarra, Mar Bonnin balearra, Olatz Agorria zornotzarra, Eider Unanue zumaitarra, Ziortza Isasi elorriarra, Nahia Dominguez tolosarra, Gloria Rodriguez murtziarra eta Maria San José valladolidtarra.

Horretaz gain, talde barrixek gazte eta kadete maillako beste bi ekipo ditu, CAF Transport Engening izenez lehiatuko dienak. Gazteetan 8 eta kadeteetan 7 neska txirrindulari arituko die.

BZK Pro Basic taldia, oin arte euezen Bizkaia-Durango eta Lointek elite maillako taldeen monopolio hori haustie nahi eben. Ideia horretatik eta emakumezkoen txirrindularitzan dauezen hutsuniei erantzuteko asmuaz ekin eutsien proiektu honi.

Aurkezpen egunien, talde barriko lehendakari dan Agustin Ruizek azaldu eban moduen, txirrindularitzako gazte maillatik eliteko taldietara dauen saltue saihesteko, erdibidie izetie nahi dabe. Euren helburuek txirrindula-



ri gaztiek esperientzia eta tekniek lortzie da, aurrea egin eta euren karrera profesionalak bideratzeko tarte, leku eta laguntzie emon nahi deusie. Holan, taldiek aurreikusitako lasterketetan mailla on bat emotie espero dabe.

BZK ProBasic taldean egutegixe, Euskaldun Torneuen eta Espainiako kopan oinarrituko da batez be. Horretaz gain Frantzia, Belgika, Holanda eta Italiako lasterketetan parte hartzie aurreikusten dabe;

eta zelan ez, Euskal Herriko Emakumeen Biran be.

Aiala Amestiren hitzetan, "Eneritzek eta Humbertok talde honetarako niaz kontau izena eskeretzen dot; ilusionaute nau. Aukera ezin hobie da gustoko doten kirola praktikatzen jarraitzeko, esperientzia hartu eta profesionalengandik ikasteko. Nire aldetik ahal doten dana emoten saiatuko naz."

Ibaia Azagirre eta  
Igone Amesti



*Oh la lá!*  
EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Telefona: 943 53 57 48  
Mugikorra: 649 55 99 09  
ohlalaermua@gmail.com

OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!!*

Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



# Berbalagun programa martxan jarriko da

Euskeraren erabilera bultzatu eta indartzeko asmoz, Kaltxango AEK euskaltegiak, Orraittio Euskara Elkartek eta Mallabiko Udalak Berbalagun programa jarri dute martxan Mallabian. Ekimen honen bitartez, euskera praktikatzeko eta euskeraz bizitzeko aukera eman nahi da.

Euskerak azken 25 urteotan izan duen gorakadaren ondoren, gaur egun euskeraren erronka nagusia erabilera sustatzea da. Izan ere, honek atzera egin du azken aldirian. Zentzu horretan, elkarte eta erakundeak lanean hasi dira gabestia hori ekiditeko, baita Mallabian ere.

Euskeraren erabilaren behar-kada nabarmena egon da Mallabiko herrigunean, base-ri auzoetan ez bezala. Azken bi hamarkadetan hainbat herritarrek ikasi du euskara eta, egun, ikasle hauen helburua kalean eta bertako herritarrekin ikasitakoa erabiltzea da. Ohiturak aldatzea, hala ere, ez da erreza, orain arte harremanetarako erabilitako hizkuntza gaztelera izan baita, baita euskaldunekin ere.

Berbalagunek ohitura horiek aldatzeko harrimintak jarriko ditu herritarren artean. Kaltxango AEK-ko Juanmi Bravok azaldu digunez, “edonorekin egin ahal dezakezu euskeraz kalean, baina Berbalagun programak ‘arnasguneak’ eskaintzen ditu, hau da, euskera eroso praktikatzeko tokiak”.

Berbalagunak 5-6 pertsonako taldeetan elkartuko dira taldeak berak aukeratzeko duen ordu eta egunean. Edonor apuntatu ahal da, bai euskera praktikatu nahi dutena, baita euskeraz ondo dakitenak eta beste lagundu nahi dietenak. Gainera, parte hartzea doakoa da.

Ekimenaren antolatzaileen asmoa Berbalagun programa ostailan bertan hastea da. Honek ekainera arte iraungo du eta, udako oporren ostean, berriz ekingo zaio.

Orain arte, Mallabiko euskera ikasleak Ermuko Berbalagun programan parte hartu behar izaten zuten, baina orain euren herrian bertan aritzeko aukera luzatuko zaie.



Aurreko urteetan Ermuan egin izan da ekimena.

## Txangoak, hitzaldiak, ikastaroak...

Euskeraz praktikatzeko ‘arnasguneak’ eskaintzeaz gain, Berbalaguneko beste hainbat ekintza eskainiko dizkie pare hartuko dutenei. Esaterako, txangoak, ‘Berba afariak’, ikastaroak, hitzaldia ba (transmisio linguistikoari buruz), eta abar.

Eskoletan, gainera, gurasoen artean berbatalde bat sortzeko asmoa dago: Gurasolagun. Berbalaguneko duen estilo berari jarraituz, honen asmoa da umeak konturatzeko euren gurasoak gai direla beste gurasoekin euskeraz egiteko. Umeak eus-



kera modu arrotzean ez hartzea da helburua, azken finean.

Berbalagun programan parte hartzeko edo informazio gehiago jasotzeko, 639 41 42 05 telefonora deitu edo ermua\_berba@ae.org helbidera idatzi daiteke. Izen ematea urtarrilaren 30ean amaituko da eta egun horretan bertan egingo da aurkezpena Kultur Etxean.

Ekhi Velar

**SEHIGA**  
PROTECCION LABORAL  
PLAN BABESERAKO  
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



hamburguesería  
**TITANIC**

Pintxo dastaketa  
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**mari  
asun**   
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**MALLABIKO  
Herriko  
taberna**

Eguneko platera (3€)  
menua bokatak,  
plater konbinatuak,  
pintxoak, kazolak,  
arraina eta txuleta  
parrillan (enkarguz)...

943 174 952  
(asteartetan itxita)

# Bizilagunak laguntzen, solidaritatea nagusi

**Autopista irteeran kokatzen badira ere, edozein tokitan daude euren beharra dagoenean. Gurutze Gorriak herritarren ongizateari begira lan egin du urteetan zehar eta gaur egunean ez zaie lanik falta. Krisiaren eraginez elikagai banaketari ekin zioten berriz orain dela pare bat urte. Hilabetero, Ermuko ehunetik gora pertsonak jasotzen dituzte elikagai sortak.**

Orain dela 16 bat urte hasi zuen Gurutze Gorriak elikagaiak banatzeko programa, Europar Ekonomia Komunitatearen soberakinak hartuz. Hainbat urteetan martxan egon ostean, proiektua bertan behera uztea erabaki zuten 2003an, baina krisia iritsi zen gero. Ermuko Udaleko Gizarte Zerbitzuko sailaren eskakizunez, 2012an berriz hasi ziren herriko familien artean elikagaiak banatzen eta, antza denez, zerbitzua eskaini beharrean dira oraindik.

Programari berriro ekin ziotenetik, elikagaiak jasotzen dituzten familia eta pertsonen kopurua mantendu egin da. Are gehiago, pixka bat gora egin du. Aurten, batez beste, 58 familiak (144 pertsonak) jasotzen dituzte elikagaiak. Urte hasieran 40 baziren (112 pertsona), abenduan 74 familia (182 pertsona) hurbildu dira elikagai bila.

Sonia Guisasola Ermua-Eibar Gurutze Gorriko arduradunak azaltzen duenez, "Udaleko Gizarte Zerbitzuetakoek eskakizunen



Elikagai Bankuak ematen die familiei behar-beharrezko elikagaiak.

kontrol zehatza daramate. Euren balorazioa pasatu behar dute familiek eta diru-sarrerarik ez dutela konfirmatu behar dute". Hori azpimarratzen du arduradunak: "Argi utzi nahiko nuke kontu hori. Hona datozenek ez dute diru-sarrerarik eta hori oso kontrolatua dago". Zerbitzu sozialak zenbat familia eta baikoitzari zer eman behar zaion zehazten diete Gurutze Gorrikoek, horiek elikagai sortak prestatu eta, hu-

rrango egunean, "diskrezio eta errespetu osoz", familiek elikagaiak jasotzen dituzte aurretik eman zaien papera aurkeztuta. "Oso ondo dago antolatuta. Laguntza hau ez zaio edonori ematen, gizarte langileen kontrola pasatu behar baitute beharra dutenek".

## Herri solidariora

Elikagaien Bankuak ekartzen ditu elikagaiak, "baina urtean zehar hainbat kanpaina egiten dira he-

**MUGA** **MUGIKORRA**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**OINAK**

**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**ZK**

Iberikoetan  
espezialistak

**Mayte**

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**ZUZENBIDE KONTUAK**

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

rrian elikagai gehiago lortzeko. Izan ere, ematen zaienarekin ezin izaten dute hilabete osoa bete". Guisapolak biziki adierazten du Ermuko biztanleria "oso solidarioa" dela. "Joan den abenduan 3.000 kg elikagai lortu genituen". Gainera, Elikagai Bankuko eta biztanleriak ematen dituen elikagaiez gain, urtero paella erraldoia egiten da herrian eta, lortutako dirua, produktu freskoak erosteko erabiltzen da. "Kontua da, Elikagai Bankuak behar-beharrezko produktuak ekartzen dituela: lekaleak, olioak, azukrea, esnea, kafea, lakak... baina produktu freskorik ez". Horrela, ahalik eta laguntza osoena ematen saiatzen dira ekimeneko parte hartzaileak.

Familiak, Sonia Guisapolaren iritziz, esker onez hartzen dituzte elikagaiak. "Hasiera batean txarto pasatzen dute, euren burua zuzitzen edo justifikatzen datoz, eta horretarako guk

umorea erabiltzen dugu, irribarrea, eta egoera puntuala dela esaten diegu". Errespetua, diskrezioa eta adeitasuna beharrezkoak dira familiak gaizki ez sentitzeko. "Garrantzitsuen euren lan egiteko aukerak ematea da, euren bizitza hobetzea, baina zaila da. Hala ere, Gurutze Gorriak badauka horretarako programa bat martxan".

### **Birglazteratzeko lanean**

Urte asko daramatza martxan Gurutze Gorriaren Enplegu Planak, "nahiz eta asko eta askok ez ezagutu", arduradunaren aburuz. Hasiera batean erregularizaturiko atzerritarrei zuzendutako programa zen. Horren bitartez, lanorientabidea, prestakuntzara bideratzea eta hainbat laneratze egin zituen Gurutze Gorriak. "Tamaletz, krisia iritsi zen". Hainbat enpresa itxi ziren, bertako asko langabezian geratu zen eta 2008an



etxeetan zaintzaileak behar zituztenekin hasi ziren lanean programa honetan. "Laneratzeko asko etxe-langile eta pertsonen zainketa izan ziren", dio Guisapolak.

2012az geroztik Gurutze Gorriak atzerritarrekin lan egiteaz gain, bertakoak ere sartu ditu bere programan. Beti ere, horiek langabezian badaude. 2014an 60 laneratze gauzatu zituzten, "oso zifra ona" Gurutzeko Gorriko arduradunaren iritziz.

Esan bezala, etxe-langile eta pertsona zaintzaileak laneratzean buru-belarri dabil Gurutze Gorria, baina Sonia Guisapola haratago doa. "Industrian lan egin eta langabezian dauden 40 urte baino gehiagoko emakumeekin lanean ari gara baita ere, zaintzaile bezala birmoldatzeko hainbat kurtso eskainiz, eta emaitza onak jaso ditugu". Laneratze horiek modu legalean egiten dira, "Gizarte Segurantzaren alta

emanez eta soldata duinekin". Gainera, bide batez, dependentzia handiko pertsonak dituzten familiek ondo prestatutako zaintzaileak edukitzeko aukera izaten dute. "Funtzionatzen jarraitu behar duen zerbait dela uste dugu, gizarte baztertzeko edo egoera ahulean ez erortzeko biderik onena dela uste dugulako".

Gurutze Gorriaren lana, zentzu horretan, ez da soilik etxe-langile eta zainketa mugatzen. "Edozein arlotan egiten ditugu laneratzeak!". Guisapolak tinco adierazten du Gurutze Gorriak lanean gogor jarraituko duela beti, orain arte bezala. "Lan handia egin eta langabezian dauden 40 urte baino gehiagoko emakumeekin lanean ari gara baita ere, zainketa bezala birmoldatzeko hainbat kurtso eskainiz, eta emaitza onak jaso ditugu". Laneratze horiek modu legalean egiten dira, "Gizarte Segurantzaren alta

Ekhi Velar



**ARINKA OINETAKOAK**

*Andra, ume eta gazteentzako zapatak*

Sexto Centenario, 17  
ERMUA (BIZKAIA)  
943 174126

**Bobby** Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotenzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20  
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
bobby.todoparatumascota@gmail.com

**EMAKUMEEEN  
KONTSEILUAN PARTE  
HARTZEKO DEIA**

Urte hasierarekin batera, Emakumearen Kontseiluak bere jardunari ekin dio berriz ere eta, urte berriari begira, herriko emakumeei euren ekimen eta bileretan parte hartzeko gonbidapena luzatzen die. Horrela, interesa izan eta gogoia duten emakumeak bertara hurbiltzeko animatzen ditu. Gainera, bakoitzak erabaki dezake zenbat alditan joan, hau da, noizean behin edo bilera guztietara.

Taldea periodikoki biltzen da eta bileretan Ermuko emakumeen elkarte eta taldeek hartzen dute parte, eta baita interesa duten bestelako emakumeek ere. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko helburua, Udal zein elkar-teetatik proposatutako ekintzak eta bestelako gaiak tratatzen dira bilera horietan. Bilera irekiak izaten dira eta ahots guztiei zabalik daude. Bilerotan ideiak jaso, egitarauak eztabaidatu, jarduerak koordinatu eta proposatzen direnez gero, Emakumeen Kontseiluak oso garrantzitsutzat jotzen du emakumeen partaidetza handitzea.

Parte hartu edo informazio gehiago lortu nahi izanez gero, 943 17 10 30 telefonora deitu edo Emakumearen Topalekura (Izelaieta, 12) hurbildu daiteke goizetan 13:30etatik 13:30etara, eta arratsaldetan 16:30etatik 20:00etara.

**Hartza, koko-jantziak eta musika inauterietan**

Ohiturari jarraituz, Inauterietako ostiralean, musika eta bertso artean ibiliko da hartza herriko kaleetan barrena. Otsailaren 13an ospatuko da Hartza Eguna. 18:00etan hasita, Lobianotik plazara kateatuta jaitsiko dute hartza baserritarrez jantzita joango diren Eskolabarriko umeek. Plazan, jendearen harrera jaso, eta ordu bete edo ordu eta erdiko kalejira egingo dute herrian zehar (eguraldiaren arabera). Amaieran, plazara itzuli eta azken bertsoak bota ostean, 200 txorizo 'preinatu' banatuko dituzte. Kalejira egiten den bitartean, geldialdi bakoitzean, koplak bat kantatuko dute hartza inguratzen dutenek.

Kalejira baino lehenago, ostegun goizean, hartza Anaitasuna ikastolan egongo da umeek hurbiletik ikus dezaten eta, ostiral goizean, Eskolabarri eskolako umeen txanda izango da. Eskola bi horiez gain, Kaltxango AEK, Udal Euskaltegia eta Euskal Birusa egon dira ekimenaren antolakuntzan.

Aurtengoa 26. aldia izango da Hartza Eguna ospatzen dena. 1990an Euskal Birusak bost hamarkadatan ezkutatuta egon zen hartza bere gordeleketatik atera zuen eta, orduetik, inauterietako ostiralean hartza eta bertsoak dira protagonista nagusiak.

**D ereduan matrikulatzeko kanpaina abian da**

Herriko ikasleak kurtso erdian badihardute ere, ikastetxeak 2015/2016 ikasturtera begira lanean hasi dira. 2 eta 3 urte bitarteko umeen aurre-matrikulazio sasoiak dela-eta, D ereduaren aldeko kanpaina jarri du martxan bosgarrenez Euskal Birusa Elkarteak. Ekimenaren barruan kartelen pegada egin da atariz atari lelo honekin: "Matrikulatu D ereduan. Kalitatezkoa, aberasgarria, integratzailea... D lako. Etorkizun eleanitzaile ondoen prestatzen dituelako!". Gaur egun bi dira Ermuan ikasketak D ereduan egitea eskaintzen duten ikastetxeak: Anaitasuna ikastola eta Ongarai eskola. Hainbat urtetan martxan dagoen ekimenarekin jarraitzeko beharra ikusten du Euskal Birusak, gurasoak euren seme-alabak D ereduan ikasteko animatuz.

**Matrikulatu D ereduan!**

Kalitatezkoa, aberasgarria, integratzailea... **D** lako

**ETORKIZUN ELEANITZERA KO ONDOEN PRESTATZEN DITUELAKO!**

Ermuko guraso askok egiten duten moduan, zuen seme-alabak **D ereduan** eskolarazera animatzen zaituztegu.

Euskara umeena ez ezik gazteena ere badelako, derrigorrezko hezkuntzari gorako ikasketetan (batxilergoa, Lanbide Heziketa, unibertsitatea...) aukeratu ezazue **D eredua**, bihar-etziko pertsona eta profesional eleanitzak sortzeko.

**Euskal Biruseko bazkide kuotak otsailean pasatuko dira**

Otsailaren 20tik aurrera bazkide kuotak kobratuko zaizkie Euskal Biruseko bazkideei. Bide batez, bazkide berriak lortzeko kanpaina luzatzen du euskara elkarteak eta horretarako hainbat bide eskaintzen ditu. 35 euroko kuota da bazkide izateko ordaindu behar dena. Jubilatuta eta ikasleek 20 euro. Euskal Biruseko bazkide izan edo informazio gehiago eskuratzea nahi duenak Erdikokale 2 kaleko bulegora jo, 943 17 93 50 telefonora deitu edo euskalbirusa@gmail.com telefonora idatz dezake.



**DESCUBRE-TE**  
Teak, kafeak, txokolateak,  
eztia... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia  
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.com  
www.teteriadescubre-te.com

**Sagarra**  
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

## 19 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak

PSE/EE eta PPren aldeko botoekin, EAJ eta Ezker Anitzaren abstentzioarekin, eta Bilduren kontrako botoarekin, 19.041.000 euroko aurrekontua onartu zen 2015 urtera begira. Carlos Totorika alkatearen berbetan, aurrekontuak herritarren lehentasunak betetzen ditu, krisian dauden familiei laguntzen zaie eta gardenak dira. Aurrekontuak onartu ziren plenoan, hala ere, oposizio taldeek zuzenketak aurkeztu zituzten, PSE eta PPK denak atzera bota bazituzten ere.

Bilduk aurrekontuen osoko zuzenketa aurkeztu zuen. "Proiektuak lehenesten dituen aurrekontua delako eta ez pertsonak, ez delako enplegu-politika eraginkorra egiten, krisian dauden familientzako partidak ez direlako behar den bezala betetzen, ez delako Euskara Plana betetzen, ez direlako gazteen beharrak asetzen eta ez direlako parte hartzaileak, ezta gardenak ere", argudiatu du Bilduk.

EAJK eskolen konponketan, unibertsitateko ikasleentzako garraio laguntzetan, langile eta eskoletako jantokietan 30.000 euro inbertitzea eskatu zuen. Zuzenketa hori ere atzera bota zuen gobernu taldeak, baina 30.000 euro horiek aurrekontura gehituko dira eskolen beharrak asetzeko.

Ezker Anitzak, bere aldetik, bizilagunen elkarteak sortzeko 90.000 euroko partida bideratzea eskatu zuen, baina gobernu taldeak atzera bota zuen, euren iritziz ez delako gomendagarria orain dela urte bi hasi eta oraindik ondo aztertu ez duten prozesua aldatzea.

## Enplegutasuna hobetzeko proiektu berria martxan

Udalak, Tokiko Garapen sailetik, eta La Caixak herriko langabetuen enplegutasuna hobetzeko @ktibatu proiektua ipini dute martxan. Izarran gauzatuko den ekimen horren helburuak betetzeko formazio jarduerak, taldeko saio, eta enpresetan prospekzio eta ekintzailtasunean lan egingo dute partaideek. Guztira 15 pertsonak parte hartu ahal izango dute @ktibatu proiektuan eta, hauek aukeratzeko, Tokiko Garapen saileko teknikariek elkarrizketak egingo dizkie izena ematen dutenei.



Proiektuaren aurkezpenean Udaleko Tokiko Garapen saileko zinegotzi Jose Luis Araujo, sail horretako teknikari Jesus Portugal, CaixaBankeko Bizkaia Ekialdeko Negozio eremuko zuzendari Joseba Argoitia eta bankuak Ermuan duen bulegoko zuzendari Igor Goienetxe izan ziren. Euren iritziz, @ktibatuk parte hartzaileen ahalmen eta gaitasunak hobetuko ditu eta, ondorioz, "egun hain lehiakorra den lan-merkatura sartzeko aukera gehiago izango dituzte".

Bezeroari Oinarrizko Arreta eskaintzeko prestakuntza ere emango zaie parte hartuko duten kideei, eta Ermuko Merkatarien Elkartearen laguntza izango dute horretarako.


Parte hartu eta prozesua gaingitzen duten guztiek lan-poltsa osatuko dute eta hori Ermuko Merkatarien Elkartearen kide diren establezimenduetan sor daitezkeen langile beharrak asetzeko erabiliko da.

## 'ELKARBIZI' PROIEKTUA HASI DA ERMUAN

Herriko ikasleak 'ElkarBizi' proiektua lantzen eta jasotzen hasi dira Istripuei Stop Euskadi elkartearen eskutik, segurtasunez mugitzen ikasleko jardueren barnean. Proiektuan, gainera, Ermuko Txirindulari Elkarteak, herriko txirindulari profesionalak edo izandakoek, eta udaltzainek hartzen dute parte. Ekimenaren bitartez DBHko 1. mailako ikasleei bizikleta joan-eto-rrietarako aukera gisa aurkeztu nahi zaie.

Anaitasuna Ikastola eta San Pelayo ikastetxeek egin dituzte eta, otsailean, Ongarai Eskolako (4, 5 eta 6an) ikasleentzako txanda iritsiko da.

Ekimenaren helburuak bi dira. Batetik, ikasleek bizikletarekin herrian zehar modu seguruan ibiltzen ikastea. Eta bestetik bizikletan dabilzanek jakin dezatela bizikleta ibilgailutzat hartua dagoela Zirkulazio Araudi Orokorrean eta horrek dakarren araudia.



**Ferreteria ANBOTO Burdindegia**

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

**Montis DQ Mouth**

**CITROËN AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14

Esther Astarloa, zeramista:

## “Kulturak ez dauka zertan errentagarria izan”

Bere eskuek artelanak sortzeko ahalmena daukate eta zeramika munduan izena egin du Esther Astarloak. Eibarren duen tailerrean asmatu eta sortzen dihardu, baina duen ezagutza elkarbanatu ere egiten du Debako Arte Eskolan. Orain, gainera, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko Zeramika Hiztegiaren sormenean hartu du parte. Ermuko zeramista honen lana hobeto ezagutzeko: [estherastarloa.com](http://estherastarloa.com).

**-Noiz sartu zenituen eskuak lehen aldiz buztinetan?**

Seguru Angel Gil-ekin izan zela, Ermuan. Orduan, Erdi-kokalen zegoen eskola. 9 urte nituen, etxean nire izena eta adina duen pieza bat baitaukat jaja. Zeramika nahiko modan zegoen une hartan.

**-Pentsatu zenuen, orduan, zeramika zure ogibide bihurtzea?**

Ez, ez. Pare bat urte egin nituen hor eta beste gauza batzutan hasi nintzen. Gero, Arte Ederrak ikasi nituen eta han ikus-entzunezkoen bidea hartu nuen. Zeramikako ikasgai batzuk hartu nituen, baina ez nion garrantzia askorik eman. Ikasketak amaitzean lanean hasi nintzen eta, Irunen nenbilenean, zerbaitetan izen-emateko gogoia sartu zitzaidan eta Donostian zeramika ikastaro batean hasi nintzen, afizio hutsez. Gustura ibili eta uda hartan Kataluniara joan nintzen Ramon Fort-ekin tornu ikastaro bat egitera. Zeramikak harrapatu egin ninduen. Ermura bizitzera bueltatzean, Eibarko Zeramika

Eskolan hasi nintzen. 2.000. urtetik aurrera urtero egin izan dut zeramika ikastaro bat, baina zerbait konkretua ikasteko: Madrilen, Teruelen, Hungarian... Langabezian geratu nintzenean, Debako Arte Eskolara joaten hasi nintzen, Eibarren arratsaldean joateko aukera besterik ez nuelako, eta aukera ona izan zen nire proiektuak gauzatzeko.

**-Nolako proiektuak zenituen buruan?**

Serieak eta abar, eta hori gauzatzeko tokia behar nuen. Gainera, lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen eta nazioarteko hainbat txapelketatan sailkatu nintzen, eta horrek demaseko indarra eman zidan.

**-Zeramikari ikasteko eskaera asko dago?**

Zeramika gauza minoritarioa da, baina kultur ondarea azken finean. Zeramika, harri eta egurrezko zizelkatzeta, galdaketa eta grabatua irakasten ditugu, eta Euskal Herrian ez dago beste non hori ikasi. Zer gertatzen den? Ez dagoela homologatua. Gaur egun denok behar ditugu tituluak eta jendea



titulazioak dauden tokira doa. Euskal Herrian bazegoen zeramika titulazioa eta Espainian badago oraindik toki askotan, baina gaur egun hemen ez daukagu. Kulturak askotan ez dauka zertan errentagarria izan. Hala ere, esan beharra daukat nik zazpi urte daramatzatela irakasle bezala eta denbora honetan zazpi ikasle tailer propioa ipini dute.

**-Lanak, orokorrean, enkarguz egiten dituzu edo inspiratzen zarenean?**

Enkarguz inoiz. Beno, bai, San Martin Azokako sariak eta Robin Food saiorko egin nituen poto batzuk, baina enkargu puntualak dira eta askatasun osoz egin ditut. Norbaitek zerbait zehatza eskatzen badit, ziur nago ez dudala berak nahi duena egitea lortuko eta niri ez dit

merezi horrela lan egiteak. Aske sentitu behar naiz lanarekin disfrutatzen, batez ere pieza eskultorikoekin.

**-Orain Pottery delakoarekin zabilta. Zertan datza?**

Potoak dira, egunerokoan erabili ditzakezunak edo ez. Seriean egindako lanak dira, bozetoekin baina espontaneoak, material ezberdinak erabiltzen ditut eta beste esangura edo helburu batekin eginak daude. Teknika eta sormena lantzen jarraitzeko aitzakia da azken finean. Beti ere, badauka kreatibitate puntu bat, denak ezberdinak baitira, pieza esklusiboak.

Ekhi Velar

Zure  
publizitatea:

943 179350

688 632876

[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

**DROGETEN** ITTURRI  
**DROGETEN**  
**DROGETEN**

aldizkarian

**uriarte asesores** ✓

Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

# Mallabiko eskola ekintzaz blai

Gabonetako oporrak hartu aurretik, hainbat ekintza egin genituen. Horretarako, azaroaren 25an Emakumearen indarkeriaren kontrako nazioarteko egunarekin hasi ginen. Herri guztiak parte hartu zuen, herria eta zerua morez jantzi genituen.

Euskararen eguna ere gustura ospatu genuen, eskolara Argitxo etorri baitzitzaigun eta aurtengo gure leloa hau izan da: "Ipurditik euskara eta ahotik euskara"

Gabonak iristen ari zirela eta, eskolako txiki-txikiak Izenadubara joan ginen, Olentzeroren etxea ezagutzera eta aldi berean euskal mitologiak bustitzera. Zoragarri pasa genuen, eguraldiak lagundu zuelako eta Olentzerori pertsonalki gutuna eman ahal izan geniolako.

Bertan, simuladorean ibiltzeaz gain, pertsonaia hauek ezagutu genituen: Martxelina sordina, Lamiak, Mari Domingi, Galzagorriak, Jentilak etb. Ikuskizun berezi batean



parte hartzeko aukera ere izan genuen, Tor magoarekin Iratxo bat harrapatu genuen.

Abenduan ekintza gehiagorekin jarraitu genuen eskolan. 3.zikloko ikasleak Urkiolako Toki-Alai interpretazio zentrora joan ginen. Izaki bizidunen gaia lantzeko, bertako fauna proiektua egin genuen. Ondo pasatzeaz gain, asko ikasi genuen. Zapaburu

arrautza eta guzti etorri ginen eskolara!

Hori gutxi balitz, LH guztia Barakaldoko PIN-era joan ginen. Oso jende gutxi egon zenez, guk primeran pasatu genuen barraketan nahi den beste bider igotzeko aukera izan genuelako.

Amaitzeko eta tradizioari jarraituz, Olentzero eskolara etorri zitzaigun opari eta ilusioz beteta.

## MALLABI ESKOLAKOEK IDATZITAKO ALBISTEAK

  
**Udal Euskaltegia**  
 Teresa Murga Eraikina  
 Goienkale z/g 2. solairua  
 ERMUA · 943 170 925  
 ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

  
**san pelayo**  
 clínica dental hortz klinika  
 San Pelayo 5, 1º  
 Ermua (Bizkaia)  
 Olatz Garcia Arregui  
 943 17 04 04

  
**MALLA**  
 ileapaindegia  
 Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

  
**TXALAPARTA**  
 ABERNA  
 Eta asteburuetan  
 pintxoak, afariak  
 eta bokatak!  
 Erdikokale 13  
 (Ermua) **ENKARGVAK**  
 943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

  
 optika  
**ITZE**  
 ✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA  
 Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

# NAHIARA GALLASTEGI

- *Beti kantatzen ibili zara ...*

Ikasi dudan gehiena nire kontu izan da eta Alboka Musika eskolan.

- *Zelan mimatzen duzu ahotsa?*

Tarte luzean ez abesten saiatzen naiz, arazo larriak izan nituelako, eta foniatrarenera joan behar izan nuelako.

- *Nondik datorkizu zale-tasuna?*

Melomana naizela esaten dut, entzun dezakedalako flamenkoa, euskal musika, kanta ingelesak...

- *Maketarik baduzu ezta?*

Bai, sei abestiz osatutakoa, eta argitaratu gabeko zenbait konposaketa ere baditut.

- *Zer dela eta ez dute argirik ikusi?*

Maketa bat grabatzeak kostu altua duelako eta etenaldi musikala izan dudalako.

- *Amodioa duzu hizpide lan askotan. Zure bizitza bera al da inspirazio iturri?*

Bai, era horretan benetan transmititu dezakedalako. Hala ere, badut kanta bat tratu txarrak jasandako emakume baten ikuspuntutik.

- *Kanta bat aipatzekotan zein?*

Boteprontoan Amaralen "Como hablar".

- *Zer egitea gustuko zenuen txikitan?*



**Barneko sentimenduei bide emateko baliatzen du musika Nahiarak. Ermuan eta Madrilen aritu izan da taula gainean. Denbora batez, kantatzeari utzi egin behar izan zion, ahots kordak urratzea saihesteko. 28 urte ditu eta bera da etxeko anai-arrebarik nagusia.**

Maltzurkeriak, nahiko zirikatzaila nintzen.

- *Ikasketarik?*

Irakasle eskola, Haur Hezkuntza eta Psikopedagogiako lizentziatura.

- *Non egiten duzu lan?*

Bi urteko umeen irakaslea naiz Azkoitiko ikastolan, eta era berean, oposaketak prestatzen nabil.

- *Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna?*

Hartuemana, umeengan-

dik jasotakoa eta nik erakutsi diezaiekedana.

- *Zein izan zen zure aurreneko lana?*

18 urte nituela, Antxitxiketaneke begirale hasi eta zortzi urte eman ditut bertan.

- *Ibilia zara munduan barna...*

Andaluzian, Marokon, Ekuadorren, Europan barrera...

- *Bidaia bat?*

Panamatik Txilera bidaiatzea gustatuko litzaidake.

- *Usain bat ...*

Jasmina.

- *Hondartza ...*

Mundaka.

- *Kolore bat?*

Morea.

- *Oroitzapen bat ...*

Nire gurasoekin Cadiz eta Huelvako hondartzan eseri, eta eguzkia zelan ezkututzen den ikustea.

- *Biziorik?*

Denbora libreba daukadanean Ermutik alde egitea.

- *Jateko?*

Dilistak ditut gogokoen.

- *Zerk kentzen dizu loa?*

Herrialde aberatsek txiroei errekurtsioak kentzen dizkietela ikusteak.

- *Zerbaiten faltan botatzen al duzu Ermuan?*

Nerabeentzako ekintza gehiago.

- *Zer eskatzen diozu etorkizunari?*

Zoriontsu izaten jarraitzea.

- *Zer miresten duzu pertsona batengan?*

Enpatia eta irribarrea.

- *Bizitzak zer irakatsi dizu?*

Bizitza bera ikasketa prozesu bat dela eta egunerokotasuna aprobetxatu behar dela.

- *Zein albiste irakurri nahiko zenuke?*

Sexu, klase eta arrazen arteko berdintasuna lortu dela.

Leire Elustondo

*Pub Dakota*



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika



Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA



# Baloi obalatuarekiko grina

**Ander Fernandez, Markel Liaño eta Ibon Vega Eibar Rugby Taldeko jokalariai dira, baina, batez ere, lagunak. Errugbia gustatzen zaie eta nabari zaie. Kirola egiteaz gain, 13 urteko gazte hauek ondo ikasi dituzte errugbiak barrenean dakartzan balioak: zintzotasuna, errespetua, diziplina, leialtasuna, sakrifizioa eta altruismoa.**

Orain dela hiru bat urte Ander Fernandezek errugbi partidu bat ikusi zuen telebistan. Ordura arte ez zuen interes handirik izan kirol horren gainean, baina neurketa hura ikusi izanak errugbiarekiko zerbait piztu zion barrenean eta aitari galdetu zion ea errugbian jokatu zezakeen. Aitaren erantzuna: "Bai".

Ermuan errugbi talderik ez dagoenez, Eibarrera joan behar izan zuen Anderrek berarentzat berria zen kirol horretan aritzeko. Eibar RT-k, 1978an sortutako klubak, errugbi eskola dauka eskualdeko gazteei kirol hori ezagutu eta praktikatzeko aukera eskaintzeko. Benjamin, alebin, infantil (14 urte azpikoak), 16 urte azpiko, 18 urte azpiko eta senior taldeak

dauzka klubak. Hori nahikoa ez balitz, veteranoen taldea ere badauka. Ander, Markel eta Ibon infantilen taldean daude.

Futbola eta atletismoa bezalako kirolak egin ostean, Markel eta Ibonek zerbait berria nahi zuten probatu. Anderrek, noski, errugbian aritzeko animatu zituen. "Ez genuen errugbiari buruz asko ezagutzen, baina izena eman, hiru entrenamendu egin eta asko gustatu zitzaigun", dio Ibonek. Urte bi pasa dira ordutik.

Ermuko hirukoteak beste herrikide bat zeukan taldean joan den urtera arte, baina horrek lagatzea erabaki zuen. Orain, Eibar RT-ko euren mailako taldea 5 kidek osatzen dute, "Eibarko eta Mutrikuko jokalaria bana daukagu". Orduan, nola osatzen dute taldea partiduak jokatzeke? Euren mailan, 14 urte azpikoenean, 13 jokalarik osatu behar dute hasierako taldea partiduetan ("datorren urtean 15 jokalarirekin hasiko



gara jokatzen", goi-mailako errugbian bezala), eta horretarako Arrasateko taldearekin batzen dira.

Astean zehar bi edo hiru aldiz entrenatzen dira, Eibar eta Arrasate tartekatuz. "Batuetan gu goaz eta besteetan eurak datoz". Partiduak ere, batuetan Eibarraren eta beste batuetan Arrasaten jokatzen dituzte.

Ibonek aurrelari bezala jokatzen du, Ander edozein postutan moldatzen da eta Markel da taldeko jokoa zabalitzen duena. Eurentzat errugbia ez da kirol gogorra. "Postuaren araberakoa da hori", dio Anderrek. Ibonek baietz dio, "korrika egin eta indarra izan behar delako", baina Markelentzat ez da hain gogorra, "kanpotik gogorra ematen du, baina ez da hainbesterako". Gutxienez, ez dute lesio handirik izan, "golperen bat edo beste, baina ezer larria".

Hirurek plakatzea dute gustuko. "Ondo sentitzen za-

ra, aurkariaren bila joan eta lurrera botatzean nolabaiteko adrenalina sentitzen duzu", aitortzen du Ibonek momentua imajinatuz. Plakaketak jasotzea, aldiz, ez dute hain gustuko. "Eta baloia ez edukitzea ere ez!", azpimarratzen du Ibonek. "Kanpotik joko nahasia dela ematen du, denak baloiaren atzean zentzu gabe doazela, baina ez, dena zentzu taktiko batekin egiten dugu, prestatutako jokaldiak dira", dio Anderrek.

Gazteak diren arren, euren ere errugbian hain fama-tua den 3. zatia egiten dute aurkariekin. "Baina garagar-gabe!". Merendola antzeko prestatzen dute partidu amaieran eta talde biek elkarrekin jaten dute. Giro horretan, hirurek luzaroan jokatu nahi dute errugbian. "Bota arte jarraitzea nahi dut", dio zintzo Anderrek. Errugbiarekiko ilusioa ez zaie falta.

Ekhi Velar



**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

# Eta badakizu

**W**hatsapp, Facebook, Twiter,...eta auskalo zenbat gehiago. Gure eguneroko bizitzan sartu dira ia konturatu gabe. Berriak irakurtzeko, lagunekin kontaktuan egoteko... eguneratuta egoteko azken finean. Aurreko egunean, baina, nire telefonoan Julio Iglesias sartu zen. Bere argakia behin baino gehiagotan jasotutako whatsappetik, atzamarra niregana zuzenduta eta bakoitzean mezu desberdin bat luzatuz, baina beti "eta badakizu" leloa erabiliz bukaeran. "Whatsappeko talde batean ez bazaude, ez zara inor, eta badakizu", esan dit azkeneko mezuan. Eta pentsatu dut nola aldatu diren azken urteotan pertsonen arteko harremanak.

Zein lagungarria den talde bateko kidea izatea, talde bateko kide sentitzea. Zein lasaigarria den eta aldi berean zelako indarra eta segurtasuna ematen duen. Txikita-

tik seguruago sentitzen gara gela bateko kide garelako ikastolan. "Ni Hirugarren B-koa naiz". Ez dakigu ziur zer garen, baina bai zer ez garen, hau da, gauza bat daukagu argi: ez gara Hirugarren A-koak. Izan ere, talde bateko kide izateak zerbait argitzen badizu da, beste talde bateko kide ez zarelara. Nerabezaroan, adibidez, punkya izatea erabakitzen baduzu, ezin duzu heavya izan, edo gotikoa, edo poperoa. Zer ez garen da ziurren dakiguna. Eta punkya izatean mundu honetako parte sentitzen zara, ez zaude bakarrik. Ez zara zure gelako atea itxita "No somos nada" abesten duen bakararra. Zein ondo ulertzen zaituzten zu bezalakoak direnek!

Whatsapeko talde batean ez bazaude ez zara inor, gogoratu dit Julio Iglesiasek irribarre batekin, eta esan zezakeen baita ere ez zarelara inor ez baduzu une oro elkarbanatzen egiten ari zarena.



*Jabi Vidal*

Egon zaitezke etxean, lasai, liburu bat gustura irakurtzen edo telebista ikusten, norbaitek tabernan hartzen ari den garagardoa- ren argakia bidaltzen dizun arte, edo eguzkia hartzen ari den hondartzaren argakia bidaltzen dizun arte. Ordura arte gustura izan bazara ere, akabo lasaitasuna eta bakea. Jada ez dago gozatzerik, gauza gehiegi galtzen ari zara!

Ez bazaude une oro konektatuta, ez zara inor, baina konektatuta baldin bazaude, galtzen ari zaren guztia zuzenean ikusten, berdin sentituko duzu ez zarelara inor. Ez dago irtenbiderik. Eta badakizu.

**Zein lagungarria den talde bateko kidea izatea**



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Zure  
**publizitatea:**

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com

**DROGETEN** ITTURRI  
**DROGETEN**  
**DROGETEN**

aldizkarian

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
 tel./fax: 943 17 07 33



**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolajea
- \* Enrailak
- \* Giltzak
- \* Sarrailagintza
- \* Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



**Abenduaren 31a:**  
Zorionak Oier zure 2. urtebetetzean!  
Marrubizko muxuak etxeko txikienarentzat familia guztiaren partez!



**Otsailaren 7a:**  
Zorionak Peio zure 2. urtebetetzean!  
Musu handi bat familiaren partez!



**Otsailaren 8a:**  
Zorionak Luken zure 6. urtebetetzean!  
Musu bat amatxo, aitatxo eta Aialaren partez. Oso ondo pasa!



**Urtarrilaren 11a:**  
Zorionak "Perlita" zure 6. urtebetetzean etxeko guztien partez!



**Urtarrilaren 12a:**  
Zorionak Paule zure 4. urtebetetzean!  
Txokolatzeko muxuak etxeko printzesarentzat familia guztiaren partez!



**Urtarrilaren 18a:**  
Zorionak amatxi! Asko maite zaitugu.  
Aita, Luka eta Samuren partez!

**Hurrengo zenbakirako azken eguna: OTSAILAREN 18a**



**Urtarrilaren 18a:**  
Zorionak Gorka zure 2. urtebetetzean!  
Ander eta gurasoen partez!



**Urtarrilaren 25a:**  
Zorionak Aitor! Zure lehen urtebetetzean musu handi bat etxeko guztien partez!

**Proba-Leku**  
Nepaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**PUB YOMY**

**Zubiaurre kalearen bihotzean**

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

## MALLABIA 1947

Argazki honetan Apoitta baserriko familia agertzen da. Aurrean eserita Mari Cruz Errasti eta Tomas Aranburu, eta atzean zutik seme-alabak: Valentin, Margarita, Juana, Vitoria eta Gregorio.



## ERMUA 1951



Kuadrilan mendira joatea, egun-pasa, domekei bere domeka usaina emateko modurik zabalduena zen sasoi batean. Idetzan erretratatuta, tente Carmen Fernández eta Loren Goitandia; jarrita Felisa Ormaetxea eta Paco Arrizabalaga.

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOKOAK

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**ILEAPAINDEGIA**  
*Izaskun*  
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90  
**ILEAPAINDEGIA**

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

**Lurrak ematen dituen baliabideak soilik aprobeztatuz lortutako produktuak dira ekologikotzat hartzen direnak. Arropak, etxe-tresnak eta elikagaiak dira, batez ere, azoka ekologikoetan eros daitezkeen produktuak.**

**Produktu ekologikoak erosteko ohitura daukazu? Prest zaude horiengatik gehiago ordaintzeko?**



Ez daukat ohiturarik. Saiatu naiz ohitura hartzen, baina ezin izan dut. Hilaro banatzen diren elikagai ekologikoen otarretan ez dakizu zer etorriko den eta horrela zailagoa da antolatzea. Ez nintzen ondo moldatu. Baina prezioari dagokionez, kalitatea badauka, ez zait batere inporta gehiago ordaintzea.

**Isabel Hernandez, 58 urte**



Bai, badut ohitura. Nire semea nahiko ekologikoa da eta, beraz, produktu ekologikoak kontsumitzen ditugu. Arazoa dirua da, produktu garestiak direlako. Hala ere, kalitatean aldea nabari da. Ni herri txikikoa naiz eta asko igartzen dut ogi, fruitu eta barazkien kalitatea.

**Martin Paz, 61 urte**




Ermuan ez dago aukera handirik ikusten produktu ekologikoak erosteko. Mallabiko lagunen batek eskaintzen ditu, baina ez dago barietate askorik. Hala ere, produktu ekologikoak lortuz gero, nahiago ditut besteak baino, eta ez zait axola gehiago ordaintzea.

**Ainara Juarez, 36 urte**



Aukera badaukat, nahiago dut produktu ekologikoak erostea. Nire arrebak ortua dauka eta handik hainbat produktu hartzen ditut. Ez daukat erosketak egiteko ohitura handirik, baina egitekotan, ez naiz espresuki produktu ekologiko bila ibiltzen. Hala ere, kalitatearen aldetik nabaria da diferentzia.

**Jose Luis Araujo, 57 urte**



**ZINEA**

7tik 9ra

14tik 16ra

21tik 23ra

28etik 2ra

Ermua Antzokian. Hainbat film eta ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

Hilak 5

Hilak 12

Hilak 19

Hilak 26

Ermua Antzokian. Hainbat film. 20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

Hilak 1

Hilak 8

Hilak 15

Hilak 22

Ermua Antzokian. Hainbat film. 17:00etan.

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

Hilak 7:

Haurrentzako ipuin kontaketa. 17:30ean. Udal Liburutegian.

Hilak 28:

Haurrentzako antzerkia: "Aladdin", Gorakada talde-

aren eskutik. 17etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

**MUSIKA**

Hilak 4:

Agata Deunaren kalejira. 18:00etatik. Alboka Musika eskolatik.

Hilak 20:

Kontzertua: La habitación roja (akustikoan). 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 21:

Blues kontzertua: Sugaray Rayford &amp; Travellin brothers. 20etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 8€

**ANTZERKIA**

Hilak 6:

"Hoy, última función", Ramón Barea eta Itziar Lazkanoren eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 13:

"Magnolias de acero", Izarraitz taldearen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€

Hilak 6:

"Erdibana", Iker Galarza eta José Ramón Soroizen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

**ERAKUSKETAK**

Hilaren 2tik 15era:

Margoak: Udal Margo eskolako ikasleak. Antolatzailea: Udal Margo Eskola.

Hilaren 18tik 4ra:

Txontxongiloen erakusketa: Gorakada taldearen 25.urteurrena.

**INAUTERIAK**

Otsailak 12, osteguna.

Eguen zuri:

15:30ean: Oilarraren jokoa.

17:00etan: Diskofesta: Xaibor Dja

Otsailak 13, ostirala.

Hartza eguna:

18:00etan: Kalejira Cardenal Orbe Plazatik.

Otsailak 14:

12:30ean: Kalejira: Irulitxa txaranga

17:30ean: Haurrentzako txokolatada

18:00etan: Haurrentzako erromeria: TTR taldea

19:00ean: Kalejira: Irulitxa txaranga.

19:30ean: Haurrentzako mozorro lehiaketa.

23:00etan: Dantzaldia: Titanes orkestra.

Otsailak 17:

16:00etan: Haurrentzako diskoteka.

18:00etan: Kale ikuskizuna: "Asmakizun asmatzai-leak". Dubitats.

19:00etan: Kalejira: Ustekabe txaranga.

23:00etan: DJ Festa Oihan Vegarekin.

**INAUTERIAK MALLABIAN**

Otsailak 17:

16:30 Umeentzako jolasak.

18:00 Txixiburduntzia eta ondoren txokolatada Trabaku-Goiko tabernan.

Otsailak 12, osteguna. Eguen zuri:

Umeek eskolan txixiburduntzia egingo dute.

Otsailak 13, ostirala. Hartza eguna:

20:00 Sabino Cuadrak "Arrojado a los leones" liburua aurkeztuko du Txaparada Kultur Elkartearen.

Otsailak 14:

Umeentzako jolasak eskolan (goizean). Arratsaldean trikitaliak edo erromeria plazan.

Otsailak 17:

17:00 TXOKOLATADA Mallabia I Kirol Etxean.

17:30-20:30 Erromeria izango da nagusi eta txikientzat.

18:00-18:30 euskal dantzak.

19:00 Mozorro lehiaketa.


Otsailak 18:

17:00 edo 18:00 Tenis erakustaldia eskolan.

Patxi López



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko



**PRO**

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA  
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com




**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

# Eskolabarri



Eskola  
Jasangarria  
Ziurtagiria



Certificado  
de Escuela  
Sostenible

# Ikastetxea

## Bizitzen ikasteko, haurrentzat egina!



[www.eskolabarri.edu.es](http://www.eskolabarri.edu.es)

**HURBILDU ZAITEZ GURE PROIEKTUA EZAGUTZERA!  
BISITA GIDATUA**

Urtarrilaren 30ean, 9:30etik 11:00etara; SAN BLAS (Santa ana-Lehen Hezkuntza)  
Etortzerik ez baduzu, deitu eta beste egun batean elkartuko gara

**MATRIKULAZIOA ZABALIK**

**Otsailaren 2tik 13ra**

**KONTAKTUA**

**943177115 [eskola@eskolabarri.es](mailto:eskola@eskolabarri.es)**

EUSKARAN eta gure herriko ohituretan oinarritutako hizkuntza proiektua

Eskola Iraukorraren Ziurtagiria (IRAES) / Eskolaz kanpoko ekintzak / Jantokia 2 urteko gelatik aurrera

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak izendatutako Proiektu Eleanitz Berriztatzaileak

Laguntza Gela / Psikopedagogia Orientazio Saila

Eskolamendi / Ingelesa 3 urtetik aurrera



<http://artarrai.blogspot.com/>

<http://www.artarrai.com>

[artarrai@euskalnet.net](mailto:artarrai@euskalnet.net)

ostegunero, 19:30etik 20:30era liburutegiaren gainean

mendi irteerak, federatzeko tramiteak, liburuak, mapak  
mendiko materiala, ikastaroak, kainoak, rafting  
argazkiak eta... giro bikaina!!